

Jostuntxo ausarta

Ipuin musikala txotxongiloekin, itzalekin,
proiekzioekin eta ganbera-orkestrarekin



GIDA DIDAKTIKOA

Fernando Palacios

AURKIBIDEA

SARRERA

Preludioa	3
Gida didaktikoa	3
Ikuskizunaren fitxa	4
Jostuntxo ausarta	
Orokortasunak	5
Ikuskizuna	5

EDUKIAK

Konpositorea eta musika	
Tibor Harsányi	6
Musika	6
Ipuin musikala	7
Los escritores y el cuento	
Jacob eta Wilhelm Grimm	8
Laburpena	8
Ipuina	9
Sortzaileak eta abeslariak	
Etcétera. Konpainia	10
Enrique Lanz	11
Yanisbel V. Martínez	11
Dramaturgia eta eszenaratzea	
Dramaturgia	12
Eszenaratze-proiektua	14
Diseinu eszenikoa	15

JARDUERAK

Probak	16
Musikariak	17
Entzuketa	18
7 euli = 7 kolpe	19
Abestiak	20
Euliak	21
Jostunaren lanabesak	22
Azken galderatxoak	23

ERANSKINA

Jostuntxo ausarta. Ipuina	24
---------------------------------	----



SARRERA

Preludioa

Ikuskizun honek gizon xume baten istorioa kontatzen digu. Gaizki-ulertu baten ondorioz, boterea eta aberastasuna lortuko ditu, eta Erregearen alabarekin ezkontzera ere iritsiko da. Istorio honek gezurrezko itxurei aurre egiten eta, egiaren aurkikuntza xede, frogak bilatzen erakusten digu.

Agertokian, txotxongiloak eta animazio-teknikak uztartzen dira, esaterako, itzalak eta proiektzioak. Gure pertsonaia nagusia jostun bat izanik, txotxongiloak jostundegi bateko osagaietan oinarrituta sortuko dira: patroiak, manikiak, artaziak, oihal-biribilkiak... Ipuinaren narratzailea jostundegi bateko nagusiaren modukoa izango da, beraz, ikuskizunak balioko du musika eta literatur baliok ez ezik, antzerkigintzako lanbideak ere hedatzeko, publikoak hainbeste ikusten ez dituen horiek, hain zuzen.



Gida didaktikoa

Gida didaktiko honen bidez, tresna bat eman nahi zaio irakasleari haurrak emanaldirako prestatzen laguntzeko, adinaren arabera. Sarrera edo prestaketa izan nahi du haurrek agertoki gainean ikustea espero duten horretarako, ikuskizuna goza eta uler dezaten. Beraz, lagungarria izan nahi du Jostuntxo ausarta ikuskizunera joan aurretiko eta ondorengo lanari begira. Irakasle bakoitzak badaki zein diren bere ikasle taldearen maila eta aukerak, hortaz, gidako edukiak haien behar zehatzen arabera hautatu ahal izango ditu, baita egokitu ere.

Gida hiru ataletan egituratu da: batetik, ikuskizunari buruzko informazio-hitzaurre orokorra; bestetik, musikari, ipuinari, abeslariari, txotxongiloari eta agertokiari buruzko informazioa; azkenik, ikasleei zuzendutako jarduerak (irakasleak koordinatu beharrekoa).

(Gida hau eratzeko erreferentziak Liburu-diskoko koadernotxoa eta Agrupartek gure herrialdean 1999an ipuin musikal hau lehenbizikoz argitaratzeko plazaraturiko Gida Didaktikoko materialak izan dira).



Jostuntxo ausarta

Ikuskizunaren fitxa

Izenburua	<i>Jostuntxo ausarta</i>
Musika	Tibor Harsányi
Ipuina	Grimm anaienean oinarritua
Generoa	Ipuin musikala, txotxongiloekin, itzalekin, proiektzioekin eta ganbera-orkestrarekin
Ekoizpena	Etcétera
Zuzendaritza, eszenografia, txotxongiloak eta proiektzioak	Enrique Lanz
Dramaturgia	Enrique Lanz eta Yanisbel Victoria Martínez
Argiztapena	Lía Alves
Musikariak	Marta Morán (biolina), Julia Torralba (biolontxelo), Pilar del Campo (txirula), Ana Pallares (klarinetea), Marina García (fagota), Jesús Cabanillas (tronpeta), David González (perkusioa), Alexis Delgado (pianoa)
Aktoreak	Noche Diéguez eta Yanisbel V. Martínez
Titiriteroak	Araceli García, Carlos Montes eta Álvaro Ortega
Lehentasunezko publikoa	7 urtetik gorakoak
Lekua	Teatro Real. Areto nagusia
Eskola-emanaldiak	Abenduak 9, 10, 11 eta 13 (10.30ean eta 12.00etan)
Familiarteko emanaldiak	Abenduak 6, 7, 8 eta 14 (11.00etan eta 13.00 ean)

Teatro Real, Etcétera, ABAO-OLBE, Musika eta Dantzaren
Granadako Nazioarteko Jaialdia.
Zientzien Granadako Parkearen laguntzarekin





Jostuntxo ausarta

Orokortasunak

Jostuntxo ausarta Grimm anaiek 1812ko Haurtzaroko eta etxeko ipuinak bilduman jasotako ipuinetako bat da (lehenbiziko bertsio literarioak XVI. mendekoak izan arren). Istorioaren arabera, jostuntxo batek kolpe bakarraz akabatu zituen lantegian bera gogaitzen ari ziren zazpi euli. Kopuruak harrituta, kalera atera zen bere balentria kontatzera; horretarako, gerriko bat bordatu eta ondokoa idatzi zuen: "Zazpi kolpe bakarraz". Jauregi baten ondora helduta, baserritarrek eta gorteko jendeak gerrikoan zeraman irakurri zutenean, zazpi gizon zirela uste izan zuten. Jostuntxoaren ustezko adore eta indarragatik, erregeak, han zegoela jakitun, erresuma hainbat arriskutatik salbatzeko agindu zion: bi erraldoi eta basurde eta adarbakar bana garaitu behar zituen. Ordainetan, jostunak erresumaren erdia eta printzesaren eskua jasoko zituen. Jostuntxo ausartak oztopoak gainditzea lortu zuen, trebetasun eta truku ugariri esker, eta, azkenean, erregearen alabarekin ezkondu zen.

Ikuskizuna

Etcétera konpainiak, Enrique Lanzek zuzenduta, 2013an eszenaratu zuen obra hau egungo haurrentzat. Konpainia honen beste sorkuntza batzuetan bezala, istorio bat dago beste baten barruan. Kasu honetan, Teatro Realeko jostundegiarena, izan ere, konpainiak lanbide horren berezko objektuekin kontatzen baitu ipuinaren bere bertsioa: patroiekin, manikiekin, lisaburdinekin, artaziekin, oihal-biribilkiekin... Horrela, publikoa jostundegi eszenikoaren munduan sartu eta berbak, lanabesak, gremioaren ohiko ekintzak eta abarrak erakusten zaizkio.

Gainera, Jostuntxo ausarta ipuinak gaurkotasun handiko gaiei heltzen die, hala nola indar fisikoaren ginetik asmamenaren eta jakinduriaren botereari, edo, ospaaren gehiegizko dimentsioaz harago, aberastasun ez-materialaren balioari -lanak eta jakintzak ematen duten horrena-; hala, ahulek, txikiek, azkarrek... irabazteko askoren nahia asetzen du. Aukera paregabea da haurrak balio literario, musikal eta eszenikoetara hurbiltzeko, baita haiek hain erraz ikusten ez dituzten antzerkigintzako hainbat lanbidetara ere. Aukera bikaina gozatzeko, pentsatzeko, entzuteko, behatzeko, barre egiteko eta antzerkiak eragiten dituen emozio horiek guztiak bizitzeko.



EDUKIAK

Konpositorea eta musika

Tibor Harsányi

(MagyarKanitsa, Hungaria, 1898 – Paris, 1954)



Hungaria herrialde musikala da zeharo: zoazen tokira zoazela, nonahi topatuko dituzu biolinistak eta klarinete-jotzaileak beren dantza bizietakoren bat jotzeko -eta dantzatzeko- prest. Hain zuzen musikarekiko harreman horregatik da konpositore eta abeslari pila baten jaioterria.

Han hasi zen ikasten, Budapesteko Musika Akademian, hamar urte zituela (1908an) gero pianista, orkestra-zuzendari eta konpositore aparta izango zena: Tibor Harsányi. Beste irakasle batzuen artean, ezagutzen diren konpositore, folklorista eta pedagogo apartenetako bi izan zituen: Kodaly eta Bártok.

Venezian, Berlinen, Amsterdamen eta Ozeano Barean ibili zen betiko bizitzen geratuko zen hiriraino heldu zen arte: Paris. Garai hartan hiri horretara heldutako Europaren erdialdeko beste konpositore batzuekin batera, "Parisko Eskola" zeritzon taldea eratu zuen.

Harrezkero, genero guztietako musika konposatzen hasi zen (operak, balletak, ganbera-musika, pianoa...), jaioterriko abesti folklorikoetan eta Europatik iritsi berria zen jazzean oinarrituta, eta orduko musikaririk apartenaren eraginekin: Stravinsky.

Tamalez, haren obrak, 100etik gora, ia ez dira jotzen egun, moda kontuak! Halere, 1950ean Jostuntxo ausarta ikuskizunerako sortu zuen musika inspirazio, ipuinerako egokitzapen eta idazketa instrumental bikainaren adibide xume gisa igaro da historiara.



Musika

Tibor Harsányik 1950ean idatzi zuen txotxongiloentzako partitura hau, eta berak egin zuen Grimm anaien ipuinaren bertsioa. 8 musikari eta narratzaile batentzako suitea da eta horiek elkarrekin kontatzen dute istorio epiko, samur eta barregarri hau. Ipuin honetako musikarako, konpositorearen nahia zen instrumentuak hurbiletik entzun ahal izatea, gela batean jotzen ariko balira bezala, beraz, orkestrako ia musikari guztiak alde batera utzi eta zortzi baino ez zituen baliatu (Ganbera-musikan, zuzendariak instrumentuen soinua ondo uztartzen dakienean, ez da faltan sumatzen orkestra sinfonikoa).

Gainera, Harsányik nahi zuen une zehatz batzuetan instrumentuek, beren soinuarekin, ipuineko ekintzak deskribatzea. Adibidez: jostuntxoak zuhaitzera igotzean eta bertatik jaistean, pianoaren eskalak entzuten dira; martxa militar baterako, ez dago tronpeta baino hoberik; biolinak euli baten moduan egiten du hegan; fagotak eta txeloak basurdearen kurrinkak irudikatzen dituzte; klarineteak "fox-trot" bat dantzatzen du adarbakarrarekin; txirula malenkoniatsu jartzen da jostuntxoak bere lantegia gogoratzen duenean... Azkenik, perkusionista instrumentu bilduma ederra jotzen jarri zuen: tinbalak, hirukia, danborra, platera, bonboa, temple-blockak, xilofonoa, lira, enbotoxirula, turuta eta hainbat zarata (euliaren burrunba, ixten ari den atea eta trapuarekin emandako kolpea). Azken emaitza magikoa da.

Ipuin musikala

Musika atsegina da entzuteko, oso egokia haur eta helduentzat. Txotxongiloekin antzeztua izateko konposatua, oso deskriptiboa da, eta ekintzak, eszenatoki eta pertsonai aldaketak, aldarteak... oso erraz jarraitu ahal izatea ahalbidetzen du. Etcéterak musika zoragarri hau eszenaratuko du, antzerkigintzaren eta ikusmenaren alderdiak nabarmenduta.

Ipuineko musika 13 zatitan dago egituratuta. Ipuina girotu, ekintzei lagundu eta une dramatikoak azpimarratzen dituzten pasarte bereizgarriak dira. Izenburuak ondokoak dira:

- 1 Lantegian
- 2 Zazpi eulien balleta eta horren ustekabeko ondorioak
- 3 Ospetsu bilakatzeko
- 4 Errege-segizioa eta promesak
- 5 Borroka basurdearekin
- 6 Lehen arrakastaren poztasuna
- 7 Erraldaien heriotza
- 8 Ohore militarrik
- 9 Lantegia gogoan
- 10 Adarbakarraren gaineko garaipena
- 11 Ordain sentimentalak
- 12 Ospea
- 13 Eta hala bazan, ez bazan...



Idazleak eta ipuina

Jacob eta Wilhelm Grimm

(Hanau, Alemania 1785 - 1786, Berlin 1863 - 1859)



Gure irudimenaren bidez XIX. mendeko Alemaniara joan ahalko bagina, eszena bitxi bat ikus genezake: herrixka bateko etxe xume batean, aparteko oroimena duen emakume bat haurtzarotik dakizkien ipuin guztiak kontatzen ari zaizkio anaia biri, herriz herri dabiltzanak ipuin aleman herriko guztiak biltzen. Emakumeak birritan kontatzen ditu ipuinok: lehenengo aldiz, bere erara eta tonu arruntean; bigarren aldiz, motel,

anaiek zehatz idazteko astia izan dezaten. Anaia zaharra, Jacob, pentsalari aparta da, ikerketa-lan hau egiteko ideia izan duena; Wilhelm, berriz, poeta da, ipuinak ahalik eta egiatasun handienaz, freskotasunez eta poetika sentiberaz idatzi behar dituena. Grimm anaiak dira.

1812an, "Haurtzaroko eta etxeko haur-ipoinak" argitaratu zuten. Bertan, hizkera herrikoia edertasun hori guztia ordenatu eta Perraultek mende bat lehenago jasotako funtsezko ipuinetako batzuk txertatu zituzten (Erpurutxo, Txanogorritxu, Errauskine...). Liburuak izugarriko arrakasta izan zuen (eta du), izenburu batzuk horren adibide: Edurne Zuri, Txokolatego etxetxea, Bremengo musikariak... eta Jostuntxo ausarta. Hiru urte beranduago, beste zati bat argitaratu zuten. Grimm anaiak beren lurraldeko folklorea eman nahi zuten ezagutzera, eta ekarpena egin poesiaren historiari. Ipuin horiek publiko orori daude zuzenduta, ez bakarrik umeei, anaiek eurek adierazi zuten bezala: "Liburuak ez dago idatzita haurrentzat, baina, gustuko badute, askoz hobeto".

Laburpena

Jostun gazte batek esnegain freskoa erosiko dio saltzaile ibiltari bati bere lantegiko leihotik. Jaki goxoa usaintzean, euli batzuk hurbilduko zaizkio esnegaina probatzeko asmoz. Jostuntxoak, ohartzean, trapu bat hartu eta haietako zazpi kolpe bakarrez akabatuko ditu. Egindakoaz harro, ezagutzera emateko moduko balentriatzat joko du, beraz, gerriko bat egin eta bertan, hizki handiz, ondokoa idatziko du: ZAZPI KOLPE BAKARRAZ! Gerrian jantzi eta munduan barna joango da, denek izan dezaten bere ausardiaren berri. Erregeak kasua ezagutu eta, jostunaren adorea frogatzeko, hiru proba jarriko dizkio. Horiek gainditzea lortzen badu, ordain ona jasoko du: erresumaren erdia eta... printzesaren eskua.



Ipuina

Kasualitate batzuek patuaren erabakiak ematen dute! Jostuntxo hark ez balu jantzi "zazpi kolpe bakarraz" zioen gerrikorik, orain ez genukeen ipuin hau edukiko. Jakina, jostuntxoak ez zukeen gerrikoan hori idatziko, aurretik ez balitu kolpe bakarraz zazpi euli astun akabatu. Horrek guztiak, batera, eragin zuen jendeak pentsatzea kanpotar hura (gazte harro samarra) gainetik zazpi etsai, eta ez zazpi euli, kendu zituen ordain-bilketaria zela. Horretarako daude ipuinak: halako gauzak gerta daitezzen.

Hemen duzuen Harsányik bere ipuin musikalerako egindako bertsio laburtua da. Grimm anaiek idatzitako jatorrizkoa irakurtzen baduzue -gomendatu egiten dizuet-, jostunaren balentria gehiago aurkituko dituzue: lau aldiz jarraian engainatzea erraldoi ergel bat edo bere kontrako azpijokoetan dabilzan erregearen soldaduei izuak jota ihes eginaraztea. Ipuin honek, batik bat, indar fiskoari dagokionez adimenaren nagusitasunaz hitz egiten du.





Sortzaileak eta abeslariak

Etcétera. Konpainia

Etcétera konpainia granadarra, Enrique Lanzek eta Fabiola Garridok 1981ean sortua, ezagunenetakoa bilakatu da nazioartean. Bere lanaren bikaintasunak eta moldakortasunak kalitatezko erreferente bihurtu dute Espainiako txotxongiloen antzerki garaikidearen barruan. Etcéterak hainbat ikuskizun estreinatu ditu, ondokoak nabarmenduta: Synopsis (1985), Trans (1990), Pedro y el lobo (1997), La serva padrona (1998), Soñando el carnaval de los animales (2004). Obra horiek arrakasta esanguratsua izan dute publikoaren eta kritikaren aldetik eta horrek nazioarteko txotxongilo eta musika jaialdi garrantzitsuenetan parte hartu ahal izatera eraman du, hamaika herrialdetara bidaiatuta, eta Espainiako antzoki entzutetsuenetan ere izan da.

Esan genezake Etcéteraren lanaren bereizgarria dela obra musikalak txotxongiloekin eszenaratzen dituela, publiko ororentzat, baina, begi-bistako horrez harago, bere ikuskizunen poesiak bereizten du, txotxongiloak sortzeko bilaketa estetiko kontzientziatua eta etengabeko ikerkuntza bere proiektu guztien eragile eta ardatz.

Nabarmendu beharra dago, izandako oihartzun publikoagatik, Bartzelonako Gran Teatre del Liceurekin izandako etenik gabeko kolaborazioa, 1999/2000 denboralditik; lau ikuskizun aurkeztu izan ditu bertan. Etcéteraren ikuskizun berrienetako bat El retablo de maese Pedro da, Manuel de Fallarena, 2009an estreinatua. Konpainiak Gran Teatre del Liceurekin, Teatro Realekin, Teatro de la Maestranzarekin, Teatro Calderónekkin, Operaren Lagunen Bilboko Elkartarekin eta Oviedoko Operarekin batera ekoitzi zuen, Andaluziako Juntaren laguntzarekin. 2009an, Etcéterak La caja de los juguetes ere estreinatu zuen, Enrique Lanzena, Claude Debussyren musketan oinarritua.



<http://www.titeresetcetera.com> <http://www.facebook.com/TiteresEtcetera> <https://twitter.com/%21/TiteresEtcetera> <http://www.flickr.com/photos/enriquelanzetcetera/>



Enrique Lanz



1981etik, Etcétera konpainia zuzentzen du. Bere prestakuntza autodidakta arte eszenikoaren maisu garrantzitsuengandik (Xavier Fàbregas, Albrecht Roser, Henryk Jurkowski...) jasotzen dituen ikastaroekin uztartzen du. Bere lehen ikuskizunekin, Synosis (1985) eta Trans (1990) obrekin, txotxongiloen Europako jaialdi garrantzitsuenetan izan zen. 1996an, Ensemble Instrumental de la Société de Musique Ancienne, Choeur Départemental des Alpes Maritimes eta Théâtre de la Massuerekin

batera, G. Bouzignacen Motets en Dialogue oratorioa ekoitzi zuen. Urte hartan, Trans Txotxongiloen Teherango Nazioarteko Jaialdira gonbidatu zuten, baita ikuskizun onena izendatu ere; gauza bera gertatu zen 1998an Synosis lanarekin.

1997an, Lanzek Pedro y el lobo zuzendu zuen, 1999an Teatralia Sari Nazionala irabazi zuena, haurrentzako ikuskizun onenaren kategorian. Gaur arte, bi mila emanaldi baino gehiago eskaini dira Espainian, Europan eta Amerikan. Harrezkero, zuzendariaren lana musika klasikoaren errepertoriotik edaten duten txotxongilo-ikuskizunetarantz bideratu da: La serva padrona (1998), Historia de Babar ele elefantito (2001) eta Soñando el carnaval de los animales (2004), El teatrino de Bernat (2005), El retablo de maese Pedro (2009), La caja de los juguetes (2009). Azken hori Teatro Realera heldu zen 2011n. Aitonari, Hermenegildo Lanz artista plastiko polifazetikoari, eskainitako hainbat erakusketaren komisario izan da. Zientzien Granadako Parkean ikusgai dagoen Títeres. 30 años de Etcétera erakusketaren komisario eta diseinatzailea da.

Yanisbel V. Martínez



Antzerkigintza Artean lizentziatua da Artearen Habanako Goi Institutuan. 1993 eta 1999 artean, hainbat antzerki konpainiarekin egin zuen lan Kuban. Bere ikuskizunek hainbat sari eta kritika bikainak jaso zituzten. 1999an, Frantziara joan zen txotxongiloen antzerkigintza Txotxongiloaren Arteen Goi Eskola Nazionalan ikasteko, eta gero Sorbonne Nouvelles ibili zen. Antzerkigintza Arteko bi master egin zituen eta, batik batik, txotxongiloen antzerkigintza garaikideari buruz ikertu zuen.

Nazioarteko hainbat konpainiarekin egin du lan, esaterako, Turak Théâtre, Kilis Puppet Company, Thang Long Water Puppet Theatre eta Txotxongiloen Vietnamgo Teatro Nazionalarekin. 2003 eta 2007 artean, txotxongiloen Alánimo Teatro konpainia zuzendu zuen Salamancan. 2007an, Etcétera konpainian sartu zen Enrique Lanzen zuzendaritza-laguntzaile. Talde horretan, ekoizpen arduradun, titiritero eta aktore lanak ere egiten ditu.

Antzerkigintza tailer eta ikastaro ugari eman ditu Kuban, Venezuelan, Frantzian, Tailandian, Grezian, Espainian eta Vietnamen. 1997tik, Kubako antzerki-aldizkarietan kolaboratzen du: Tablas, Conjunto, Mojiganga; hala nola antzerkiaren inguruko Kubako jaialdi, gertakizun eta argitalpenen antolaketan.



Dramaturgia eta eszenaratzea

Dramaturgia

Ikuskizunaren dramaturgiaren arduradunak Enrique Lanz eta Yanisbel Victoria Martínez dira. Abiapuntua testu-iturri bat izango da, Tibor Harsányik idatzitako Grimm anaien ipuinaren bertsioa, hain zuzen.

Beste garai batzuetako ipuin klasiko, opera eta ballet ugarik eduki klasistak eta sexistak dituzte, garai hauetan "politikoki desegokia" izan litekeena. Baina hori da gure ondarea, halakoak izan ginen, horrela pentsatzen dugu, horrela eratu zen artearen historia, eta hori ezin dugu ez ukatu, ez baztertu.

Gure dramaturgia proposamenak zalantzan jarriko ditu gai horiek. Batetik, ipuina pertsonaia nagusiaren generoa aldatuta kontatuko dugu, berdintasun printzipioen alde eginda; baina, era berean, ipuin tradizionalak bere horretan aldarrikatuko ditugu. Jostuntxo ausartarekin, klasiko ezaguna denez, haurrek eta helduek erraz alderatu ahal izango dute ipuinaren beste interpretazio batzuekin eta euren ondorioak atera.



Ipuinaren narratzailea antzoki bateko jostundegiko nagusia izango da. Berak bere istorioa kontatuko du -zergatik dagoen han, nola heldu zen antzokira, zertan datzan bere lana-. "Jostun azkarra" izango da, Jostuntxo ausartaren jatorrizko elezaharrek benetako parabola bat eginda. Eta zalantzan jarriko ditu zenbait gai, esaterako, zergatik eman emakume baten eskua ordainetan edo zergatik eskaini aberastasun materiala ondo egindako lana saritzeko. Testutik, jatorrizko ipuinean dauden eta erabateko gaurkotasuna duten ideiak nabarmendu nahi ditugu:



- garrantzirik gabeko gertakari bat (zazpi euli kolpe bakarraz hiltzea, kasu goretsiz lorturiko ospea
- gaizki-ulertu batetik sorturiko nahasteei benetako esangura ematea (jostuntxoak ez zuen inor engainatu, besteek interpretatu zuten gaizki mezua; hark esan gabekoaren hizkuntza erabili zuen, eta, horrela, erraldoiak, adarbakarra eta basurdea garaitu zituen).
- istorio honek erakusten digu ez dela zurrumurruen edo itxuren arabera jokatu behar, eta, egiaren aurkikuntza xede, frogak bilatu behar direla.

Ipuinen sailkapenaren baitan, honakoa azerien eta zortearen kategorian sar liteke. Argitasuna eskuratu egiten dela sustatu behar da, eta Jostuntxo ausartak ahulek, txikiek eta azkarrek irabazteko askoren nahia asetzen du.

Tibor Harsányiren obrak hogeita hamabost minutu irauten du, eta ikuskizunak, berriz, berrogeita hamar edo berrogeita hamabost minutu. Konpainiaren beste ikuskizun batzuetan bezala, istorio bat egongo da beste baten barruan. Kasu honetan, jostundegiko nagusiarena, ipuinaren bere bertsioa kontatuko baitu, baina, aldi berean, haurrak jostundegi eszenikoaren munduan sartu eta lanbide horretako ohiko berbak, lanabesak eta ekintzak erakutsiko dizkie. Horrekin, gure asmoa da literatur eta musika balioak ez ezik, antzerkigintzako lanbide horiek ere ezagutzera ematea, publikoak hainbeste ikusten ez dituen horiek, hain zuzen. Helburu errepikakorra da Etcéteraren antzezlanetan; gogora ditzagun Pedro y el lobo obrako teknikaria, Soñando el carnaval de los animales laneko musikariak edo La caja de los juguetes ikuskizuneko aretozaina. Ederra eta baliagarria iruditzen zaigu antzerkigintzako gure profesionalak agertokian jolasteko "material" ere bilakatu ahal izatea.





Eszenaratze-proiektua

Etcéterak publiko familiarrari zuzendutako ikuskizuna proposatzen du, sei-zazpi urtetik gorako umeentzat, eta neurri ertain-handiko agertokietan egiteko. Gutxi gorabeherako iraupena berrogeita hamar-berrogeita hamabost minutukoa da eta hamalau lagun egongo dira agertokian (aktoreak, titiriteroak eta musikariak).

Proiektu honek jakintzak indarrak baino gehiago balio duela izango du hizpide. Gure asmoa da genero berdintasuna, aberastasun ez-materiala -lanak eta jakinduriak ematen duten hori- eta ospearen gehiegizko dimentsioaren moduko balio edo ideiak nabarmentzea. Aktore-narratzaileak kontatuko du istorioa eta, eszenaratzeko, hoberen erabiltzen dakigun tresna baliatuko dugu: txotxongiloa. Hainbat animazio-teknika uztartuko ditugu: itzalak, proiektzioak eta objektuak, pertsonaiak eta siluetak sortzeko jostundegi bateko ohiko osagaiak erabiliz: patroiak, manikiak, lisaburdinak, artaziak, oihal-biribilkiak eta abarrak. Titriritero biak ezkutatuta egongo dira.

Gure lanean ohikoa den bezala, espazioak, dekoratuek eta txotxongiloek truku ugari izango dituzte, xumeak baina eraginkorrak, beraz, ezer ez da izango dirudiena eta guztia bilakatu da ikuslearen aurrean modu "magikoan". Amarruak, plano-jolasak, eskala aldaketak, jolas-gune ugariak, agertzen diren osagaiak, desagertzen direnak, edo bilakatzen direnak, artifizioak eta Etcéteraren poetikaren eszena-artistautza bereizgarria publikoarengan zentzumenen lilurazko aldartea eragiteko.



Musika izango da gida, une bakoitzean erritmoa ezarriko duena. Zortzi musikariak eszena-jolasean txertatuta egongo dira. Haien lana ez da mugatuko Harsányiren partitura jotzera, izan ere, ekintza gertatzen den jostundegiko beste langile batzuen azalean jarrita, elkarreraginean arituko baitira agertokian gertatzen denarekin.



Osagai horiekin guztiekin, ikuslearentzat gozamen estetikoko esperientzia bihurtuko den ikuskizuna sortu nahi dugu, eta magiak, umoreak eta gaiak, musikarekin batera, benetako zorion eta hausnarketa uneak eragitea.



Diseinu eszenikoa

Eszenografia, txotxongilo, jantzi eta bideoen diseinuaz Enrique Lanz arduratuko da. Artista polibalentea, batera diseinatzen ditu eszena, horren idazketa, ekintzak, dekoratua eta giroak. Horrek ematen die koherentzia haren ikuskizunei, osagai guztiak elkarlotuta dauden heinean.

Proposamen eszenografikoaren oinarria antzoki bateko jostundegia osatzen duten ohiko gauzez beteriko giroa izango da: josteko makinak, lisaburdinak, lan-mahai handi bat eta oihal-biribilkiak, zabaldu eta hainbat forma hartuko dituztenak. Horiek euskarri izango dira itzalen eta bideoen proiektioentzat, eta, era berean, ekintzak garatuko diren leku desberdinak iradokiko dituzte: jostuntxoaren lantegia, jauregia, basoa, etab. Oihal-biribilkiek, malguak diren heinean, agertoki desberdinetara moldatzeko gaitasun handia emango dute, izan ere, ikuskizuna gune ertain-handietarako pentsatuta baitago.

Txotxongiloak ere jostundegi bateko osagaiekin eraikiko dira: manikiak, patroiak, hari-txirrikak, artaziak, lisaburdinak eta abarrak. Irudietako asko publikoaren aurrean egingo dira, istorioko pertsonaien jaiotza ikus dezan, jostundegiko bertako jarduera gisa.

Erabiliko diren animazio-tekniketako bat itzalena izango denez, argiarekin loturiko guztia arreta handiz zainduko da. Dekoratuan argi proiektore edota iturri txikiak txertatuko dira, ekoizpenaren zati izango direnak, eta horrek autonomia handiagoa ahalbidetuko digu biretan. Konpainiaren bideo-proiektoreak ere erabiliko ditugu.

Kontuan hartuta ekintza antzoki bateko jostundegian garatzen dela eta jostunak direla protagonistak, jostundegi bateko lana oso ekintza zehatzen bidez erakutsi nahi dugu: harilkatu, josi, lisatu, bordatu, tindatu, neurtu, moztu; eta, era berean, oraindik bukatzeko dauden piezekin.



JARDUERAK

Ipuin musikal honen inguruko jarduerak egiteko, Jostuntxo ausarta liburu-diskoarekin lan egitea gomendatzen dizuegu (La mota de polvo bilduma, Agrupartek argitaratua, Gasteiz, 2002). Bertan, ipuin musikal osoa dago, musika bereizita, eszenen testu eta marrazkiak barne.

Hemen aurki daiteke: www.agruparte.com



Probak

Ipuin honetan, jostuntxoak hiru proba zail gairitu behar ditu: basurdea, adarbakarra eta erraldoiak garaitu behar ditu.

- 1) Idatzi antzeko ipuin bat, baina zurean jostuntxoak boa bat ehizatu beharko du, bi estralurtar kanporatu, dinosauro bat hezi, arkakuso ñimiño bat harrapatu, itsasoan hondoratutako ontzi bat erreskatatu... hori guztia inolako armarik gabe, bere adimenarekin baino ez, hau da, zurearekin.
- 2) Demagun jostuntxoak kolpea ematean ez duela eulirik akabatzen. Zalantzarik gabe, ipuina bestelakoa izango zen. Idatzi "kolpe bakarraz eulirik ez" zuen akabatu jostuntxoaren ipuina eta erantsi marrazkiak.
- 3) Ziur bururatuko zaizkizuela basurde bat kaiola batean harrapatzeko beste modu batzuk. Zein arrisku dauka basurde batekin topo egiteak? Zergatik da garrantzitsua basurdeak egotea? Onak dira gure elikadurarako? Zein pertsonaia ezagutzen duzue basurdeak jatea maite duena?
- 4) Adarbakarrak existitu ez arren, badaude oso antzekoak diren animaliak. Konta dezakezue nolakoak eta zein familiatakoak diren? Badakizue zer den narbala?
- 5) Badakigu erraldoiak ipuinetako pertsonaia direla. Zure ustez, existitu dira inoiz? Non? Ezagutzen duzue Gulliverren bidaiak ipuina?



Musikariak

Ipuin musikal honetan, ondoko musikariek hartzen dute parte: pianistak, biolinistak, biolontxelo-jotzaileak, txirulariak, klarinete-jotzaileak, fagot-jotzaileak, tronpeta-jotzaileak eta perkusionistak.



- 1) Identifikatu instrumentu guztiak eta sailkatu familiaren arabera: harizkoak, haize-zurezkoak, haize-metalezkoak eta perkusioa.
- 2) Perkusionistak hamar instrumentu jotzen ditu: tinbalak, hirukia, danborra, platera, bonboa, temple-blockak, xilofonoa, lira, enbolo-txirula eta turuta. Bilatu instrumentu horiek musika liburu batean (edo edonon) eta topa eta entzun itzazu diskoan.
- 3) Perkusionistak, era berean, orkestra batean ezohikoak diren hiru zarata egiten ditu: euliaren burrunba, ixten den atearena eta trapu batekin emandako kolpea. Entzun musika osorik eta adierazi zein unetan agertzen den zarata horietako bakoitza.
- 4) 6. pasartean (Lehen arrakastaren poztasuna), haur-kanta txiki bat dago, lehenengo fagotak jotzen duena eta gero xilofonoak. Aurkitu, ikasi buruz eta, ondoren, jo edozein instrumenturekin.
- 5) Egin gauza bera 8. pasarteko (Ohore militarrik) tronpetaren doinuarekin eta 12.eko (Ospea) bukaerako akordeekin.



Entzuketa

- 1) Entzun 13 musikak eta ikasi haien izenburuak. Ondoren, entzun ordenarik gabe eta jarri dagokien izenburua.
- 2) Multzokatu musikak beren izaeraren arabera: alaiak, goibelak, borrokalariak, ilunak, lasaiak, etab.
- 3) Entzun eta identifikatu ipuin musikaleko ondoko uneak:
 - jostuntxoa zuhaitzera igotzean eta bertatik jaistean, pianoaren eskalak entzuten dira
 - martxa militar baterako ez dago tronpeta baino hoberik
 - biolinak euliak bezala egiten du hegan
 - fagotak eta txeloak basurdearen kurrinkak irudikatzen dituzte
 - klarineteak "fox-trot" bat dantzatuko du adarbakarrarekin
 - txirula malenkoniatsu jarriko da jostunak bere lantegia gogoratzean
- 4) Youtuben, zenbait pasarte, entsegu eta emanaldi interesgarri topa ditzakegu:
<http://www.youtube.com/watch?v=ph4wMxm009Y> <http://www.youtube.com/watch?v=cvGwE3rzgvo> <http://www.youtube.com/watch?v=OowgRss7fPo>
- 5) Karaokea: irakurritako testuak eta musikak tartekatuz, eta liburu-diskoko jarraibideen arabera, bertsio bat egin dezakezue denon artean. Lehenik eta behin, lana behar bezala banatu behar da:
 - Entzun pare bat aldiz ipuin musikala
 - Irakurri testua denon artean
 - Ikasi zein unetan sartzan diren testuak eta musikak
 - Banatu ipuineko paperak denon artean
 - Ume batek zuzendari lana egingo du: testu eta musiken sarrera adierazten du, orkestra-zuzendari batek bezala
 - Beste batek soinu-teknikariarena egingo du: CDa abiarazi eta, dagokion unean, eten egingo du.
- 6) Ipuin musikal hau oso egokia da antzezpen eszenikoak egiteko, jantziekin, dekoratuarekin, ile-apainketarekin, argiztapenarekin... (eskolak gertakizun mota hauek antolatzen duen eskarmentuaren arabera). Garrantzitsuena da testua eta musika ondo ezagutzea eta paperak egoki banatzea: narratzailea, jostuntxoa, erregea, basurdea, erraldoiak, adarbakarra, printzesa eta abar.
- 7) Zoltan Kodaly eta Béla Bartok musika hau konposatu zuen musikariaren maisuak izan ziren, Harsányirenak, hain zuzen. Haien biek haurrentzako konposatu zituzten obretako zenbait entzutea gomendatzen dizuet.



7 euli = 7 kolpe

- 1) Erritmoaren ikuspuntutik, 7 zenbakia oso berezia da. Ez dauka 8aren egonkortasuna, ezta 6aren pultsazio bizi-bizia ere. Erritmo herrena da, baina oso interesgarria. Gorputz-perkusioarekin 7ko erritmo bat egin dezakegu, horrela:

1 txaloa erdira	
2 eskuineko eskua bularrera	3 ezkerreko eskua bularrera
4 eskuineko eskua hankara	5 ezkerreko eskua hankara
6 eskuineko oinarekin zapaldu	7 ezkerreko oinarekin zapaldu

- 2) Behin doitu, gelatik ibiliko gara 6. eta 7. puntuetako oinkadekin baino ez.
3) Errepasa ditzagun "zazpi" famatu batzuk:

Zazpi, zazpi magnifikoak bezala.
Zazpi, Edurne Zuriren lagunak.
Zazpi, Kanariar Irlak bezala.
Siete, James Bond: zero, zero zazpi.
Zazpi, zazpi emaztegai zazpi anaiarentzat.
Zazpi, katu batek dituen bizitzak.
Zazpi, beteko dituzun urteak.
Do, re, mi, fa, sol, la, si... Zazpi!
Astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala ... Zazpi!
Urtarrilak 1, otsailak 2, martxoak 3... uztailak 7, San Fermin! Zazpi!



Topatu beste zazpi, ikusiko duzu dirudiena baino gehiago daudela.
Marrastu 7 zenbakia bururatzen zaizkizun modu guztietan.

- 4) Ipuin musikaleko pasarte bakoitzak erritmo desberdina dauka. Ikertu eta lagundu erritmoa eskuarekin, bolalumarekin eta, are hobeto, dantzatuz:

1 Lantegian	<i>vals txiki baten antzekoa (a 3)</i>
2 Zazpi eulien balleta	<i>beste vals txiki bat, bihurriagoa (a 3)</i>
3 Ospetsu bilakatzeko	<i>erritmo lasaia, ia erritmorik gabe</i>
4 Errege-segizioa eta promesak	<i>pausoa markatzeko kalejira (a 2)</i>
5 Borroka basurdearekin	<i>eszena dramatikoa aldaketekin</i>
6 Lehen arrakastaren poztasuna	<i>haur kanta (a 2)</i>
7 Erraldioen heriotza	<i>eszena dramatikoa aldaketekin</i>
8 Ohore militarrik	<i>martxa militarra (a 2)</i>
9 Lantegia gogoan	<i>erritmo motela, lo egiteko egokia</i>
10 Adarbakarraren gaineko garaipena	<i>fox-trota: dantzatzeko jazz erritmoa (a 4)</i>
11 Ordain sentimentalak	<i>maitasun kanta (a 3)</i>
12 Ospea	<i>martxa (a 2)</i>
13 Eta hala bazan, ez bazan...	<i>buelta hasierara</i>



Abestiak

Ipuin musikalean, erraz ezagutzeko moduko hainbat doinu entzuten dira. Letra jarri diegu, baina zuek nahi bezala alda diezaiekezue. Garrantzitsua da abestea. Bata bihurri samarra da, bestea militarra, eta hirugarrena oso sentimentala. Zein eszenatakoak dira? Gelako instrumentuak balia ditzakezue, edo gitarra.

En el bos-que, he ven-ci - do, en el bos-que con in-ge-nio he ven ci - do al ja - ba - lí

Cuan - do teen - con - tré Yo mee - na - mo - ré po - dre - mos
Cuan - do teen - cuen - tre y mee - na - mo - re mi gran a -
al - can - zar jun - tos los dos fe - li - ci - dad.
mor - se - rás jun - tos los dos fe - li - ci - dad.



Euliak

- 1) Ahots Adierazpena garatzeko, Antonio Machadoren "Las moscas" poema erabil dezakegu, edo bertso egokiagoak hautatu. Garrantzitsua da argi eta garbi ahoskatzea, intonazioari dagokionez "doinu" ona garatzea eta bertsoen erritmoa ondo markatzea.

Vosotras, las familiares,
Inevitables golosas,
vosotras moscas vulgares,
me evocáis todas las cosas.

¡Oh viejas moscas voraces
Como abejas en abril,
viejas moscas pertinaces
sobre mi calva infantil!

¡Moscas del primer hastío
en el salón familiar
las claras tardes de estío
en que yo empecé a soñar!

Y en la aborrecida escuela,
raudas moscas divertidas
perseguidas
por amor de lo que vuela,
-que todo es volar-, sonoras
rebotando en los cristales
en los días otoñales...

Moscas de todas las horas,
De infancia y adolescencia,
De mi juventud dorada;
De esta segunda inocencia,
Que da en no creer nada,
De siempre... Moscas vulgares,
Que de puro familiares
No tendréis digno cantor:

Yo sé que os habéis posado
Sobre el juguete encantado,
Sobre el librote cerrado,
Sobre la carta de amor
Sobre los párpados yertos
de los muertos.

Inevitables golosas,
Que ni labráis como abejas,
Ni brilláis cual mariposas:
Pequeñitas revoltosas,
Vosotras, amigas viejas,
Me evocáis todas las cosas.

- 2) Bertsoen deklamazioa landu ostean, Joan Manuel Serratek Machadoren poemetan oinarrituta egin zuen diskorako ondutako poema horren bertsoaren bideo batzuk goza ditzakegu.

<http://www.youtube.com/watch?v=qYlf4rlhRh4> <http://www.youtube.com/watch?v=mpy3Xpd6nVQ>

- 3) Beste eulitzar eta erlaster interesgarri batzuk eskaintzen dizkizuegu.

<http://www.youtube.com/watch?v=Kf3yAofOV54> <http://www.youtube.com/watch?v=VX2glKEFds> <http://www.youtube.com/watch?v=ZUjKVwoHeHI> <http://www.youtube.com/watch?v=G1CNtc3aWaA> <http://www.youtube.com/watch?v=A-S68jdfetk>



Jostunaren lanabesak

Ikuskizun hau gauzatzeko, Enrique Lanzek jostun baten ogibidean ezinbestekoak diren zenbait osagai erakusten dizkigu. Haien izenak ikertzen ditu, zertarako balio duten, eta lanabes multzoa falta diren beste batzuekin osatzen du.





Azken galderatxoak

- 1) Zein produktu tipiko ezagutzen dituzu kalean saltzen direnak?
- 2) Zergatik doaz euliak esnegainera multzoan?
- 3) Zein beste modu bururatzen zaizu probak gainditzeko?
- 4) Zer esan nahi dute ondoko hitzek: desegokiak, handia, ongilea, estrategia eta malenkoniatsua?
- 5) Zer esan nahi dute ondoko esamoldeek: ez arte, ez parte eduki, ziztu bizian alde egin, bide onetik joan, ohore militarrek eskaini eta nire alabaren eskua eman?
- 6) Zein beste ipuin ezagutzen duzu Grimm anaiena?
- 7) 13 pasarteetako zeinetan dago musika ona desfilatzeko eta zeinetan jazza gogorarazten duena?
- 8) Zein da 10. pasartean (Adarbakarraren gaineko garaipena) bakarrik jotzen duen lehenengo instrumentua Eta 6.ean (Lehen arrakastaren poztasuna)?
- 9) Zein musika jotzen dira behin baino gehiagotan ipuinean?
- 10) Ezagutzen duzu beste pasarte musikalik hain ondo imitatzen duena intsektu baten hegaldia?
- 11) Nola deitzen da basurdearen harrapaketan atzamarrak txeloaren soketatik irristatzearen soinua?
- 12) Nola deitzen da basurdearen harrapaketan atzamarrak txeloaren soketatik irristatzearen soinua?



ERANSKINA

Jostuntxo ausarta

Musika *I - Lantegian*

Udako goiz batean, jostun txiki bat, bere lantegiko leiho ondoan eserita, etengabe josten ari zen oso aldarte onean.

Orduan, baserritar bat agertu zen kalean, zera esanez:

- "Esnegain goxoa! Esnegain freskoa salgai!"
- "Zatoz hona, emakume atsegina. Hemen duzu erosle bat".

Esnegain freskoaren usaina gela osoan zabaldu eta paretetara iritsi zen, euliz beteta zeudenak, eta euliok multzoan hurbildu ziren euren harrapakina jazartzera.

- "Aizue! Ez duzue ez arte, ez parte honetan!" -esan zien gizontxoak. Eta bisitari gogaikarriak uxatzen hasi zen.

Baina euliak, haren hizkuntza ulertu barik, ondora itzultzen zitzaizkion. Areago, gero eta gehiago ziren hurbiltzen zirenak.

Musika *II – Zazpi eulien balleta*

Euliek jostunaren pazientzia agortu zutenez, tiraderatik trapu puska ederra hartu eta haiengana jo zuen:

- "Ondo da! Ikusiko duzue zer den ona!"

Eta, suminduta, kolpe bat jo zuen.

Ondoren, bajak zenbatu zituen. Gutxienez zazpi zeuden, hankak luzatuta hilda.

Ikuskizun haren aurrean, bere adoreak liluratuta, zera oihukatu zuen:

- "¡Hiri osoak izan behar du nire ausardiaren berri! Jendeak jakin beharra dauka zertarako gai naizen!"

Orduan, gerriko bat egitea erabaki zuen, eta bertan, hizki handiz, ondokoa bordatzea:

ZAZPI KOLPE BAKARRAZ!. Gerrikoa jantzi eta, munduan barna ibiltzeko prest, abiatu egin zen. Eta, oso arina zenez, nekatu barik ibili zen luzaroan.

Ibilaldi luzea egin ostean, jauregi bateko lorategira heldu zen, eta, akitu samar sentitu zenez, belarretan etzan eta loak hartu zuen.

Musika *III – Ospetsu bilakatzeko...*

Handik igarotzen zen jendeak goitik behera begiratzen zion, eta gerrikoan zeramana irakurtzen zuten: ZAZPI KOLPE BAKARRAZ.

- "Arranopola -esaten zuten-, pertsonaia aparta izan behar da."

Beraz, erregeari haren berri ematera joatea erabaki zuten.

Musika *IV - Errege-segizioa eta promesak.*

Bere herriak lagunduta, erregeak ondoko hitzekin agurtu zuen jostuntxo ausarta:



- "Zuri, zapi kolpe bakarraz akabatzeko gauza izan zaren horri, gure herrialdea mehatxatzen ari diren hiru arrisku izugarritatik salba gaitzazun eskatu nahi dizut. Lehenik eta behin, Basurdea garbitu behar duzu. Ondoren, bi Erraldoi. Azkenik, Adarbakar bat. Ordainetan, balentria horiek gauzatuz gero, nire erresumaren erdia eta alabaren eskua emango dizkizut".

Jostuntxo ausarta Basurdearen bila abiatu zen. Bakar-bakarrik zihoan, ehiztaririk gabe. Basoan sartu eta Basurdea lasai zegoen toki batera iritsi zen.

Musika *V - Borroka Basurdearekin.*

Animalia, jostuna han zegoela ohartu bezain laster, ahotik aparra botatzen hasi eta haren kontra jo zuen, bere letagin izugarriekin akabatzeko prest. Baina gure heroiak bizkor egin zuen korrika eta gertu zegoen kapera txiki batean babestu zuen bere burua, eta, azkar, leihotik egin zuen salto. Piztiak barruraino jarraitu zuen, baina, jauzi bitan, jostuntxoa aterantz joan eta muturrean itxi zion. Leihotik ihes egiteko astunegi eta lodiegia, basapiztia barruan harrapatuta geratu zen.

Jostunak, betebeharra bukatuta, ehiztariei deitu zien bertatik bertara ikus zezaten basurde preso. Eta baserritarrek txalo egin zioten, beren ongilearen garaipenagatik pozarren.

Musika *VI - Lehen arrakastaren poztasuna*

PUM! PUM! Lurrak dar-dar egiten zuen Erraldoiak igarotzearekin batera. PUM! PUM! Orduan, jostuntxoak zitzu bizian egin zuen alde. Denborarik galdu gabe, poltsikoak harriz bete eta zuhaitz batera igo zen.

Musika *VII - Erraldioen heriotza.*

Erraldoiak basoko soilgunera iritsi zirenean, han etzan eta berehala geratu ziren lo. Jostuntxoa, orduan, adar batean behera joan eta harri bat bestearen atzetik bota zituen erraldoietako baten bularrera.

Erraldoia esnatu egin zen eta, adiskideari ukondokada emanez, zera esan zion:

- "Zergatik jo nauzu?"
- "Ametsetan zabilta -erantzun zion-, nik ez zaitut ukitu".
- "Ez?... Beno".

Berriz etzan zen eta jostuntxoak, une horretan, beste harri bat bota zion bigarren erraldoiari.

- "Jakin daiteke zer duzun? Zergatik jo nauzu?"
- "Nik? Ez zaitut ukitu".

Jostuntxo ausartak bere estrategiarekin jarraitu zuen: harririk handiena aukeratu eta bere indar guztiarekin bota zion lehenengo erraldoiari.

- "Aski da! Nahikoa da!" -oihukatuz sutan bota zitzaion gainera adiskideari, zuhaitz baten kontra bultzatuz, hain bortitz, ezen ia lurrera bota baitzuen.

Besteak txanpon berarekin ordaindu zion; kolpea bueltatu eta borrokan hasi ziren, hainbesteko indarkeriaz non, suminduta, zuhaitzak lurretik atera zituzten elkar astintzeko. Azkenean, biek ala biek bukatu zuten lurrean hilda.



Erraldoiak akabatu ostean, jostuntxoa lasai asko jaitsi zen zuhaitzetik. Zain zeuden zaldunek, zorioneko balentria hark liluratuta, ohore militarrek eskaini zizkioten.

Musika *VIII - Ohore militarrek*

- "Bide onetik doa dena... orain arte: Erraldoiak, Basurdea... baina Adarbakarra beste gauza bat da! Zergatik utziko ote nuen nire etxea? Noiz itzuliko ote naiz nire lantegira? -zioen bere golkorako. Malenkoniatsu, amets egiten zuen.

Musika *IX - Lantegia gogoan*

Eta jostuntxo gizajoa, izututa, basoan sartu zen. Ez zuen luzaroan itxaron behar izan, Adarbakarra bat-batean agertu eta gainera joan baitzitzaion erabat txikitzeko prest.

Musika *X - Adarbakarraren gaineko garaipena*

- "Poliki, poliki -pentsatu zuen-, ez horren azkar. Eta, zutabea balitz bezala, geldi geratu zen haren zain.

Piztia berarengandik pauso batera izan arte itxaron zuen. Orduan, bizkor jauzi egin eta zuhaitz baten atzean jarri zen. Adarbakarrak, ziztu bizian zetorrenak, enborrarekin talka egin eta bere adarra hain sakon sartu zuen, ezen ezin izan baitzuen atera, eta, horrela, harrapatuta geratu zen.

Hala, inolako ahaleginik egin gabe, baina asmamen handia baliatuz, Jostuntxo Ausartak adarbakarra ehizatu zuen.

- "ZAZPI KOLPE BAKARRAZ, gure 'zazpi kolpe bakarraz' agurgarria -esan zuen erregeak-, merezi izan duzu zugar jarritako konfiantza. Herrialdea Basurdetik, Erraldietatik eta Adarbakarretik salbatu duzu. Beraz, nire erresumaren erdia eta errege-intsigniak zuretzat izango dira; nire emazteak, erreginak, erramuzko koroa jarriko dizu; eta printzesak bere eskua emango dizu".

Musika *XI - Ordain sentimentalak*

Ezkontza eta ospakizunak berehala hasi ziren, eta jostuntxo ausarta luzaroan omendu zuten herriko biztanleek.

Musika *XII - Ospea*

Eta, lagun agurgarriak, hasierako musika berriz entzutea baino ez zaigu falta JOSTUNTXXO AUSARTAREN ipuinari agur esan aurretik.

Musika *XIII - Eta hala bazan, ez bazan...*

- - - -